

NAFARROAKO  
ESKOLA  
KONTSEILUA  
CONSEJO  
ESCOLAR  
DE NAVARRA

Memoria

2016  
2017



Nafarroako Gobernua  
Gobierno de Navarra



Nafarroako Eskola Kontseilua  
Hezkuntzako Batzorde Nagusia  
Consejo Escolar de Navarra  
Junta Superior de Educación

# **Nafarroako Eskola Kontseiluaren memoria**

## **2016-2017 ikasturtea**

**(2016ko irailaren 1etik 2017eko abuztuaren 31ra)**

Nafarroako Eskola Kontseiluaren osoko bilkurak 2017ko urriaren 25ean  
onetsia

## **Memoria del Consejo Escolar de Navarra**

### **Curso 2016/2017**

**(1 de septiembre de 2016 al 31 de agosto de 2017)**

Aprobada por el Pleno del Consejo Escolar de Navarra el 25 de octubre de  
2017

**NAFARROAKO ESKOLA KONTSEILUAREN MEMORIA /  
HEZKUNTZAKO BATZORDE NAGUSIA, 2016-2017 IKASTURTEA**

**Egilea**

Nafarroako Eskola Kontseilua / Hezkuntzako Batzorde Nagusia  
Hezkuntza Departamentua. Nafarroako Gobernua.

**Kontseiluaren idazkaritza:**

Teresa Pérez Juanco  
Mª Cruz Planchuelo Aranguren  
Ana Reclusa Burgui  
Oihane Valderrama Erburu

**Azaleko marrazkia:**

Noelia Azagra

**Lege-gordailua**

DL NA 1662-2000

**MEMORIA DEL CONSEJO ESCOLAR DE NAVARRA / JUNTA SUPERIOR  
DE EDUCACIÓN, curso 2016/2017**

**Autor**

Consejo Escolar de Navarra / Junta Superior de Educación.  
Departamento de Educación. Gobierno de Navarra.

**Secretaría del Consejo:**

Teresa Pérez Juanco  
Mª Cruz Planchuelo Aranguren  
Ana Reclusa Burgui  
Oihane Valderrama Erburu

**Ilustración de portada:**

Noelia Azagra

**Depósito Legal**

DL NA 1662-2000

**INDIZEA**

<b>SARRERA .....</b>	<b>7</b>
<b>1. ARAUBIDE JURIDIKOA.....</b>	<b>9</b>
1.1. Araubide juridikoa.	
1.2. Nafarroako Eskola Kontseiluaren lanak.	
1.2.1. Aginduzko lanak.	
1.2.2. Aginduzkoak ez diren lanak.	
<b>2. ESKOLA KONTSEILUAREN OSAERA .....</b>	<b>12</b>
2.1. Kide anitzeko organoak.	
2.1.1. Osoko Bilkura.	
2.1.2. Batzorde Iraunkorra.	
2.1.3. Lan Batzordeak.	
<b>3. OSOKO BILKURAREN SAIOAK.....</b>	<b>16</b>
3.1. Osoko bilkuretan bertaratzea.	
3.2. Osoko bilkuren laburpena.	
<b>4. BATZORDE IRAUNKORREN SAIOAK.....</b>	<b>20</b>
4.1. Batzorde iraunkorretan bertaratzea.	
4.2. Batzorde iraunkorraren bilkuren laburpenak.	
<b>5. TXOSTENAK.....</b>	<b>27</b>
5.1. “Nafarroako Hezkuntza Sistemaren Txostena”.	
5.2. Monografia “0-6 Haur Hezkuntza”.	
5.3. Monografia “Berrikuntza Proiektuak” 2015-2016”.	
<b>6. IRIZPENAK .....</b>	<b>35</b>
<b>7. LAN EGITASMOAREN GARAPENA.....</b>	<b>37</b>
<b>8. ESKOLA KONTSEILUA SAREAN.....</b>	<b>60</b>
<b>9. ESTATUKO ESKOLA KONTSEILUA .....</b>	<b>65</b>

<b>10. ESKOLA KONTSEILUAREN PRESENTZIA ERAKUNDEETAN.....</b>	<b>67</b>
<b>11. ARGITALPENAK.....</b>	<b>71</b>
<b>12. MEMORIA EKONOMIKOA.....</b>	<b>77</b>

## ÍNDICE

<b>INTRODUCCIÓN .....</b>	<b>88</b>
<b>1. RÉGIMEN JURÍDICO .....</b>	<b>90</b>
1.1. Régimen Jurídico.	
1.2. Tareas del Consejo Escolar de Navarra.	
1.2.1. Tareas preceptivas.	
1.2.2. Tareas no preceptivas.	
<b>2. COMPOSICIÓN DEL CONSEJO ESCOLAR .....</b>	<b>93</b>
2.1. Órganos colegiados.	
2.1.1. Pleno.	
2.1.2. Comisión Permanente.	
2.1.3. Comisiones de trabajo.	
<b>3. SESIONES DEL PLENO .....</b>	<b>98</b>
3.1. Asistencia a los Plenos.	
3.2. Resúmenes de los Plenos celebrados.	
<b>4. SESIONES DE LA COMISIÓN PERMANENTE .....</b>	<b>103</b>
4.1. Asistencia a las Comisiones Permanentes.	
4.2. Resúmenes de las sesiones de la Comisión Permanente.	
<b>5. INFORMES .....</b>	<b>110</b>
5.1. "Informe sobre el sistema educativo en Navarra".	
5.2. Monografía "0-6 Educación Infantil".	
5.3. Monografía "Proyectos de innovación 2015-2016".	
<b>6. DICTÁMENES .....</b>	<b>118</b>
<b>7. DESARROLLO DEL PLAN DE ACTUACIÓN .....</b>	<b>120</b>
<b>8. EL CONSEJO EN LA RED .....</b>	<b>143</b>
<b>9. CONSEJO ESCOLAR DEL ESTADO .....</b>	<b>148</b>

<b>10. PRESENCIA INSTITUCIONAL .....</b>	<b>150</b>
<b>11. PUBLICACIONES .....</b>	<b>154</b>
<b>12. MEMORIA ECONÓMICA .....</b>	<b>160</b>

**SARRERA.**

Nafarroako Eskola Kontseiluaren eginkizunetako bat urteko jardueren memoria lantza da. Dokumentuak aurreko jarraibideak segituz, era zehatzean informatzen du 2016-2017 ikasturtean egindako jarduerei buruz. Horrela, Osoko Bilkuran edo Batzorde Iraunkorrean hartutako erabakiak eta egindako Txostenak edo Irizpenak komunikatzen dira, beste hezkuntza eragile eta erakundeekin harremanak, Estatuko Eskola Kontseiluko elkarlana edo egindako hedatze ekintzak.

Kontseiluak garatzen duen lana ezinezkoa litzateke osatzen duten kideen borondatezko lanik gabe. Beraien dira erakundearen bizkarrezurra. Derrigorrezkoa da, beraz, egindako ekarpenak aitortzea.

Baliagarria egingo zaizuelakoan.

2017ko urriaren 25a

Aitor Etxarte Berezibar

Azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legearen bitartez arautu ziren Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntza Batzorde Nagusia eta tokiko kontseiluak (NAO, 1997ko azaroaren 12ko). Foru lege horretarako 11.1 artikuluak ondokoa dio:

*"Eskola Kontseilu edo Hezkuntzako Batzorde Nagusiak hurrengoak prestatuko ditu ikasturtero: bere jardueren memoria eta Nafarroako hezkuntza sistemaren egoerari buruzko txostena".*

Legeak ezarritakoarekin bat, Nafarroako Eskola Kontseiluak 2016-2017 ikasturteari dagokion memoria aurkeztu du (2016ko irailaren 1etik 2017ko abuztuaren 31rakoa). 2017ko urriaren 25ean egindako osoko bilkuran onetsi zen, aho batez.

Bertan azaldu dira hezkuntza arloko kontsultako eta parte-hartzeko erakunde horren urteko lan egitasmoa, burututako jarduerak eta 2016-2017 ikasturtean onetsitako irizpenen testu osoa.

Ondoko pertsonek hartu zuten parte saio hartan:

Aitor Etxarte Berezibar  
Antonio Iriarte Moncayola  
Javier Albizu Sanz  
Santiago Álvarez Folgueras  
Mª Jose Anaut Couso  
Pedro Baile Torrea  
Fernando Mª Barainca Lagos  
Aurora Bernal Martínez de Soria  
Camino Bueno Zamarbide  
Ernesto Delás Villanueva  
Ander Domblás García  
Jesús Mª Ezponda Iradier  
Mikel Fernández de Quincoces Martínez de Birgara  
Alfredo Hoyuelos Planillo  
Ignacio Iraizoz Zubeldía  
Lourdes Larunbe Arretxe  
Karmele Marañón Chasco  
Carmela Muñoz Ventura  
Nekane Oroz Bretón  
Roberto Pérez Elorza  
Nora Salbotx Alegría  
Ignacio Toni Echeverría  
Amaia Zubieta Garciandía

## **1. ARAUBIDE JURIDIKOA.**

### **1.1. ARAUBIDE JURIDIKOA.**

- Spainiako Konstituzioa, 1978ko abenduaren 27koa. 27.5 artikulua: "Botere publikoek bermatzen dute gizabanako guztiak hezkuntza eskubidea, hezkuntzari buruzko programazio orokorraren bidez, sektore interesdun guztiak parte-hartze eragingarriarekin eta ikastetxeak sortuz".
- 8/1985 Lege Organikoa, uztailaren 3koa, Hezkuntzaren Eskubidea arautzehoa. 34. artikulua: "Autonomia erkidego bakoitzaren lurraldetako esparrurako eskola kontseilu bat izanen da. Kontseilu horren osaera eta eginkizunak arautuko ditu kasuan kasuko autonomia erkidegoko biltzarreko legeak. Irakaskuntza programazioaren ondorioetarako, lege horrek bermatuko du, edozein kasutan, ukitutako sektoreen partaidetza egokia". 1070/1990 Errege Dekretua, abuztuaren 31koa, irakaskuntza ez-unibertsitarioko eginkizun eta zerbitzuak Estatuko Administratziotik Nafarroako Foru Komunitatera eskualdatzen dituena (EAO, 1990eko irailaren 1eko).
- 12/1997 Foru Legea, azaroaren 4koa, Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntza Batzorde Nagusia eta Tokiko Kontseiluak arautzen dituena (NAO, 1997ko azaroaren 12ko).
- 356/1998 Foru Dekretua, abenduaren 21ekoa, Nafarroako Eskola Kontseiluaren edo Hezkuntzako Batzorde Nagusiaren Antolakuntza eta Funtzionamendurako Arautegia onesten duena (NAO, 1999ko urtarrilaren 20ko).
- Erabakia, Nafarroako Eskola Kontseiluko osoko bilkurak 1999ko otsailaren 16an hartua, Batzorde Iraunkorriaren zenbait eskuumen eskuordetzen dizkiona. Erabakia, Nafarroako Eskola Kontseiluko osoko bilkurak 2004ko ekainaren 28an hartua, Batzorde Iraunkorriaren eskuordetzen diona Lanbide Heziketako teknikari eta goi mailako teknikari tituluen curriculumak antolatzen dituzten foru dekretuetarako egitasmoen tramitaziorako aginduzko txostenak prestatzea.
- Erabakia, Nafarroako Eskola Kontseiluko osoko bilkurak 2004ko ekainaren 28an hartua, Batzorde Iraunkorriaren eskuordetzen diona Hezkuntza Departamentuaren eta Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren arteko lankidetza hitzarmen edo erabakien gainerako iritzia emateko eginkizuna, hezkuntzako zerbitzu publikoa ematearekin zerikusia duten jardueretan.
- 19/2012 Foru Legea, abenduaren 4koa, Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia eta Tokiko Kontseiluak arautzen dituen azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legearren 4. artikulua aldatzen duena (NAO, 2012ko abenduaren 17ko).
- Erabakia, Nafarroako Gobernuak 2016ko irailaren 7an hartua, Nafarroako Eskola Kontseiluko edo Hezkuntza Batzorde Nagusiko kideak berritzen duena (NAO, 2016ko irailaren 16ko).
- Erabakia, Nafarroako Gobernuak 2016ko urriaren 26an hartua, Nafarroako Eskola Kontseilukidea edo Hezkuntza Batzorde Nagusiko kidea izendatzen duena (2016ko azaroaren 4eko NAO).
- Erabakia, Nafarroako Gobernuak 2016ko abenduaren 14an hartua, Nafarroako Eskola Kontseilukidea edo Hezkuntza Batzorde Nagusiko kidea izendatzen duena (2016ko abenduaren 27ko NAO).

- Erabakia, Nafarroako Gobernuak 2017ko urtarrilaren 18an hartua, Nafarroako Eskola Kontseilukidea edo Hezkuntza Batzorde Nagusiko kidea izendatzen duena (2017ko otsailaren 3ko NAO).
- Erabakia, Nafarroako Gobernuak 2017ko martxoaren 15ean hartua, Nafarroako Eskola Kontseiluko edo Hezkuntza Batzorde Nagusiko Idazkaria berritzen duena (2017ko martxoaren 30eko NAO).
- Erabakia, Nafarroako Gobernuak 2017ko maiatzaren 31n hartua, Nafarroako Eskola Kontseilukidea edo Hezkuntza Batzorde Nagusiko kidea izendatzen duena (2017ko maiatzaren 31ko NAO).

## 1.2. NAFARROAKO ESKOLA KONTSEILUAREN LANAK

### 1.2.1. Aginduzko lanak

Nafarroako Eskola Kontseilua / Hezkuntzako Batzorde Nagusia hezkuntza komunitatearen parte-hartze organo gorena da unibertsitatez kanpoko Nafarroako ikasketen plangintzari dagokionez. Bertan, hezkuntzarekin zerikusia duten sektore nagusiak daude ordezkatuta.

Eskola Kontseiluaren eginkizunik garrantzitsuena da Nafarroako Foru Komunitatean unibertsitatez kanpoko hezkuntza arautuko duten arauen egitasmoak aztertzea eta horiengainean eztabaidatzea, eta adostutako zuzenketak Hezkuntza Departamentuari proposatzea. Halaber, hezkuntzako alderdi esanguratsuen gaineko azterlanak eta txostenak prestatzen ditu, Estatuko Eskola Kontseiluan parte hartzen du eta beste zernahi egiten du; Kontseiluaren web orrian jasota dago hori guztia.

Zehazki:

- Hezkuntza Departamentuak igortzen dizkion agiriak aztertzea eta horiei buruz eztabaidatzea, irakaskuntzaren programazio orokorreko alderdien gainean legez ezinbestekoak diren irizpenak prestatzeko. Agiri hauek ondoko hauei buruzkoak dira:
  - Hezkuntzarekin loturiko gaiei dagokienez, Nafarroako Gobernuak onetsi beharreko arautegi exekutibo orokorrentzako egitasmoak edo foru legeentzako aurreproiektuak.
  - Planifikazio orokorrerako printzipioak, oinarriak eta irizpideak, ikastetxeen sorrera, aldaketa, kentzea eta lurralte banaketari dagokienez.
  - Ikastetxeen eta ikastetxeetako langile eta ekipamenduen ezaugarriei buruzko araudi orokorra.
  - Ikastetxe publikoen eta ikastetxe pribatu itunduen eta diruz lagunduen finantzaketari buruzko irizpide orokorrak.
  - Hizkuntza ereduen ezaugarriei eta ezarpenari buruzko xedapen orokorrak.
  - Bekei eta ikasketetarako laguntzei buruzko printzipio orokorrak.
  - Eskolaz kanpoko jarduerei eta zerbitzu osagarriei buruzko araudi orokorra.
  - Hezkuntza gaietan Estatuarekin edo beste autonomia erkidego batzuekin lankidetza hitzarmenak edo akordioak egiteko egitasmoak.
  - Hezkuntzaren kalitatea hobetzea edo desberdintasun sozial eta individualak konpentsatzea helburu duten xedapenak.
- Txostenak egitea Hezkuntza Departamentuak eskatutako gaien gainean.
- Urtero txosten bat prestatzea Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza sistemaren egoerari buruz.
- Urtero Nafarroako Eskola Kontseiluaren jardueren memoria prestatzea.
- Parte hartza Estatuko Eskola Kontseiluaren osoko bilkuraren eta erkidegoetako eskola kontseiluen parte-hartze batzordearen saioetan.

### **1.2.2. Aginduzkoak ez diren lanak**

- Bere ekimenez ikerketak eta proposamenak egitea, irakaskuntzaren programazio orokorrarekin lotutako bestelako gaiei buruz, eta goragokoei igortzea.
- IDEA aldizkaria prestatzea eta kaleratzea.
- Hezkuntzan gaurkotasuna duten gaien inguruko jardunaldiak antolatzea.
- Eskola kontseiluen topaketan jardunaldiak antolatzea.

## 2 – ESKOLA KONTSEILUAREN OSAERA

### 2.1. KIDE ANITZEKO ERAKUNDEAK

2017ko ekainaren 30ean, honakoa zen Nafarroako Eskola Kontseiluaren osaera:

#### 2.1.1. Osoko bilkura

**Lehendakaria:** Aitor Etxarte Berezibar (2015eko irailaren 3ko Nafarroako Gobernuko Erabakia, NAO 2015-9-10).

**Idazkaria:** Iñigo Arrizubieta (2017ko martxoaren 15eko Nafarroako Gobernuko Erabakia, NAO 2017-03-30).

Sektoreen ordezkari diren kontseilukideen zerrenda:

Titularra	Antolakundea	Gobernuaren erabakia
<b>Hezkuntza administrazioa</b>		
Ander Domblás García		2016-09-07 (NAO 16-09-16)
Mikel Fernández de Quincoces Martínez de Birgara		2015-9-23 (NAO 15-10-19)
Esther Monterrubio Ariznabarreta		2015-9-23 (NAO 15-10-19)
Nekane Oroz Bretón		2016-09-07 (NAO 16-09-16)
Roberto Pérez Elorza		2016-09-07 (NAO 16-09-16)
<b>Ikastetxe publikoetako irakasleak</b>		
Mª Soledad Garjón López	AFAPNA	2015-10-28 (NAO 15-11-16)
Nora Salbotx Alegría	LAB	2017-01-18 (NAO 17-02-03)
Amaia Zubieto Garcíandía	STEILAS	2016-02-24 (NAO 16-.3-04)
<b>Ikastetxe pribatuetako irakaslea</b>		
Fernando Barainca Lagos	FSIE-SEPNA	2015-12-02 (NAO 21-12-15)
Carmela Muñoz Ventura	FETE-UGT	2015-10-28 (NAO 16-11-15)
<b>Ikastetxeetako zuzendariak</b>		
Camino Bueno Zamarbide	Ikastetxe publikoak (ADI)	2015-12-02 (NAO 21-12-15)
Jesús María Ezponda Iradier	Itundutako ikastetxe pribatuak	2015-10-28 (NAO 15-11-16)
<b>Nafarroako ikastetxe pribatuetako entitate titularrak</b>		
Ignacio María Iraizoz Zubeldía	ANEGR-FERE	2015-10-28 (NAO 15-11-16)

## NAFARROAKO ESKOLA KONTSEILUREN OSAERA

Jorge Lanchas Rivero	ANEK-FERE	2015-10-28 (NAO 15-11-16)
Josu Repáraz Leiza	NIE-FNI	2015-10-28 (NAO 15-11-16)
<b>Unibertsitateak</b>		
Cristina Bayona Sáez	NUP-UPNA	2015-10-28 (NAO 15-11-16)
Aurora Bernal Martínez de Soria	UNA	2015-12-02 (NAO 21-12-15)
<b>Nafarroako Parlamentua</b>		
Miren Aranoa Astigarraga	EH BILDU	2015-12-02 (NAO 15-12-21)
Mª Luisa de Simón Caballero	APF de Izquierda-Ezkerra	2015-12-02 (NAO 15-12-21)
<b>Ordezkartzarik handieneko empresa elkartea</b>		
Fco. José Flores Pérez	CEN	2015-10-28 (NAO 15-11-16)
<b>Ordezkartzarik handieneko sindikatua</b>		
Mª José Anaut Couso	UGT	2015-10-28 (NAO 15-11-16)
<b>Ikastetxeetako AZLak</b>		
Lourdes Larunbe Arretxe	LAB	2015-12-02 (NAO 15-12-21)
<b>Ikasleen guraso elkarteen Nafarroako federazioak</b>		
Santiago Álvarez Folgueras	HERRIKOA	2015-10-28 (NAO 15-11-16)
Pedro Baile Torrea	CONCAPA	2015-10-28 (NAO 15-11-16)
Juan Luis García Martín	HERRIKOA	2017-05-31 (NAO 17-11-15)
Ernesto Delás Villanueva	SORTZEN-IKASBATUAZ	2015-10-28 (NAO 15-11-16)
Sergio Gómez Salvador	CONCAPA	2015-10-28 (NAO 15-11-16)
<b>Nafarroako toki entitateak</b>		
Javier Albizu Sanz	Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen Federazioa	2015-10-28 (NAO 15-11-16)
Karmele Marañón Chasco	Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen Federazioa	2016-12-14 (NAO 16-12-27)
<b>Desgaitasuna duten pertsonak</b>		
Ignacio Toni Echeverría	CERMIN	2015-12-02 (NAO 15-12-21)
<b>Berdintasunaren alde lan egiten duten elkartea</b>		
Sonia Cabrero del Amo	Nafarroan genero berdintasunaren alde lan egiten duten emakume elkarrean	2015-12-02 (NAO 15-12-21)
<b>Izen handiko pertsona</b>		
Alfredo Hoyuelos Planillo	Haur eskolak	2015-9-23 (NAO 15-10-19)

Ikasleak		
Josu Millán Bargodá	Ikastetxe publikoak	2016-4-06 (NAO 16-04-21)
Juan Larraza Pérez-Salazar	Itundutako ikastetxe pribatuak	2016-4-06 (NAO 16-04-21)

### 2.1.2. Batzorde iraunkorra

<b>Lehendakaria:</b>	Aitor Etxarte Berezibar
<b>Idazkaria:</b>	Iñigo Arrizubieta Balerdi
<b>Kideak:</b>	Santiago Álvarez Folgueras
	Pedro M <sup>a</sup> Baile Torrea
	Fernando Barainca Lagos
	Mikel Fernández de Quincoces Martínez de Birgara
	Jorge Lanchas Rivero
	Nora Salbotx Alegria
	Amaia Zubietarri Garciandía

### 2.1.3. Lan batzordeak

Osoko Bilkurak irailaren 28an hartutako erabakiaren bitartez onetsi zen 2016-2017 ikasturterako lan batzordeen osaera.

#### 1. Batzordea: (Irizpenak)

Roberto Pérez Elorza
Javier Albizu Sanz
José M <sup>a</sup> Carrillo Álvarez
Jesús M <sup>a</sup> Ezponda Iradier
Jorge Lanchas Rivero
Amaia Zubietarri Garciandía

#### 2. Batzordea: (Memoria- NHST 2. kapitulua)

Ander Domblás García
M <sup>a</sup> José Anaut Couso
Pedro M <sup>a</sup> Baile Torrea
Aurora Bernal Martínez de Soria
Sonia Cabrero del Amo
M <sup>a</sup> Soledad Garjón López
Iñaki Iraizoz Zubeldía
Lourdes Larunbe Arretxe

**3. Batzordea: (NHST 3. kapitulua)**

Nekane Oroz Breton  
Javier Albizu Sanz  
Ernesto Delás Villanueva  
Francisco José Flores Pérez  
Sergio Gómez Salvador  
Carmela Muñoz Ventura  
Josu Repáraz Leiza  
Iñaki Berasategi Zurutuza  
Ignacio Toni Echeverría

**4. Batzordea: (NEK antolam-funtzionamendua; NHST 4. kapitulua)**

Aitor Etxarte Berezibar  
Santiago Álvarez Folgueras  
Fermín Casado Leoz  
Fernando Barainca Lagos  
Cristina Bayona Sáez  
Camino Bueno Zamarbide  
Marisa de Simón Caballero  
Jesús M<sup>a</sup> Ezponda Iradier  
Juan Larraza Pérez-Salazar  
Esther Monterrubio Ariznabarreta

**5. Batzordea: (NHST 5. kapitulua)**

Aitor Etxarte Berezibar  
Santiago Álvarez Folgueras  
Andoni Amadoz Azpíroz  
Miren Aranoa Astigarraga  
Pedro M<sup>a</sup> Baile Torrea  
Fernando Barainca Lagos  
Camino Bueno Zamarbide  
Ander Domblás García  
Jesús M<sup>a</sup> Ezponda Iradier  
M<sup>a</sup> Soledad Garjón López  
Jorge Lanchas Rivero  
Nekane Oroz Bretón  
Roberto Pérez Elorza  
Amaia Zubietarri Garciandía

### 3. OSOKO BILKURAREN SAIOAK

#### 3.1. OSOKO BILKURETARA BERTARATZEA

Osoko bilkurako kide kop.	Izendatutako kideen kop.	Bertaratutakoen bataz bestekoa	Bertaratutakoen %a
36	36	26	%69,44

#### 3.2. 2016KO IRAILETIK 2017KO ABUZTURA EGINDAKO OSOKO BILKUREN LABURPENA

Osoko bilkura 8 aldiz bildu da. Landutako gaiak eta hartutako erabakiak ondoko hauek dira:

##### 2016ko irailaren 28an

José Luis Mendoza Peña jauna, Hezkuntza Kontseilaria, bertaratu da Nafarroako Eskola Kontseiluan ikasturteari hasiera emateko.

- Hezkuntza administrazioaren ordezkari berrien aurkezpena egin da.
- 2016ko ekainaren 28ko saioaren akta onetsi da. Idazkariak, Santiago Álvarez Folquerasek eta Mª Soledad Garjón Lópezen zuzenketak jaso direla azaldu du.
- Lehendakariak Kontseiluaren gai orokoren berri eman du.
- 2016-2017 ikasturteko Lan Egitasmoaren azalpena eman du Lehendakariak.
- 2015-2016 ikasturteko Nafarroako Hezkuntza Sistemaren (NHST) egoeraren azalpena egin da.
- 2015-2016 ikasturteko Nafarroako Eskola Kontseiluaren oroitidazkia hurrengo osoko bilkuran aurkeztuko dela azaldu du Lehendakariak.

##### 2016ko urriaren 26an

- 2016ko irailaren 28ko saioaren akta onetsi da.
- Lehendakariak Kontseiluaren gai orokoren berri eman du.
- “0-6 Haur Hezkuntza-Educación Infantil” Monografiaren egoeraren aurkezpena egin da.
- “Udazkeneko Jardunaldien” prestaketa aurkeztu da. Aurretik banatutako programaren jarraipena eta proiektuak aurkezten dituzten eskoletara bisita formatua eta edukia adosteko. Humberto Bustince Sola irakasleak Tuteran eta Iruñean egingo duen irekiera hitzaldia itxita dago.
- “Udaberriko Jardunaldien” gai nagusia Nafarroako Landa eremuko eskolak izango dela azaldu du Lehendakariak. Antolaketa prozesua martxan da. Esperientziak aurkeztuko dituzten ikastetxeekin harremanetan jarriko da eta Landa Eskolako koordinatzaileekin, Landa Eskolak, Landa Garapena eta Giza Eskubideen Atalarekin eta beste eragileekin biltzeko plana azaldu du.
- 2015-2016 ikasturteko Nafarroako Eskola Kontseiluaren Memoria aurkeztu eta guztien adostasunez onetsi da (19 boto alde).
- Lehendakariak 2017 urterako aurrekontua aurkeztu du eta guztien adostasunez onetsi da.

##### 2016ko abenduaren 21ean

- 2016ko urriaren 26ko saioaren akta onetsi da.
- Lehendakariak Kontseiluaren gai orokoren berri eman du.
- “0-6 Haur Hezkuntza-Educación Infantil” Monografiaren aurkezpenaren berri eman du. Azaroaren 30ean izan zen. Ikastetxeetara eta bestelako erakundeetara Monografiaren banaketa.

- “Berrikuntza proiektuak” gai nagusi duten Kontseiluaren XVIII Jardunaldien informazioa eman du. Lan-taldeekin egindako bilerak nabarmendu eta Humberto Bustince Sola irakaslearen hitzaldia eskertu du. Aurreikusitako programa Tutera eta Iruñean burutu zen.
- “Landa eremuko eskola Nafarroan” gai nagusi duten XIX Jardunaldiak apirilaren 7an eta 8an egingo dira. Hizlariak, Roser Boix Tomàs, Mikel Goñi Sagastume eta Ana Isabel Ayala Sender izango dira. Aurrez aukeratutako Nafarroako zenbait Landa eskolek ere hitzaldiak eskainiko dituzte.
- 36/2016 Irizpena, Eskolatzearren Agindu Foralaren Proiektuaren gainekoa, onetsi zen. Mikel Fernández de Quincoces Martínez de Birgarak lege-proiektuaren azalpena eman du. Jesús Mª Ezponda Iradier, Josu Repáraz Leiza, Francisco José Flores Pérez, Ignacio María Iraizoz Zubeldía, Jorge Lanchas Rivero, Amaia Zubieta Garciandía, Sergio Gómez Salvador, Ignacio Toni Echeverría eta Alfredo Hoyuelos Planilloren zuzenketak jaso dira.  
Irizpena onetsi da: aldeko 19 boto, aurkako 8 boto eta 3 abstentzio.
- 37/2016 Irizpena, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Ebaluazioaren Foru Aginduaren proiektuaren gainekoa, onetsi da. Alfredo Hoyuelos Planillo, Ignacio Toni Echeverria, Camino Bueno Zamarbide eta Amaia Zubieta Garciandíaren zuzenketak jaso dira.  
Irizpena ontsi da: aldeko 26 boto, aurkako 0 boto eta 2 abstentzio.
- 38/2016 Irizpena onetsi zen, PAI Foru Aginduaren proiektuaren gainekoa. Roberto Pérez Elorzar, Zuzendari Nagusiak, Lege-proiektua azaldu du. Amaia Zubieta Garciandiak proiektuaren itzulpena egitea proposatu du. Bertaratutako batzuen arteko eztabaida baten ondoren, Jesús Mª Ezponda Iradier, Francisco José Flores Pérez, Amaia Zubieta Garciandía, Alfredo Hoyuelos Planillo, Iñaki Berasategi Zurutuza, Sergio Gómez Salvador, Santiago Álvarez Folgueras eta Ignacio Toni Echeverriak aurkeztutako zuzenketak aztertu dira.  
Irizpena onetsi da: aldeko 13 boto, aurkako 6 boto eta 3 abstentzio.
- Lehendakariak, Nafarroako Hezkuntza Sistemaren Txostena (NHST) kudeatzeko erabili den sistema berria azaldu du. Testua hobetzeko zuzenketak aurkeztu dituzten batzordekideei eskerrak eman dizkie.  
Txostena ontsi da: aldeko 20 boto, aurkako 0 boto eta 0 abstentzio.
- Nafarroako Eskola Kontseiluaren 2016ko 2. seihilekoko kontuak onetsi dira, aho batez.

### **2017ko otsailaren 21ean**

- 2016ko abenduaren 21eko saioaren akta ontesi da Sergio Gómez Salvadorren argibideak entzun ondoren.
- Lehendakariak Kontseiluaren gai orokoren berri eman du: Estatuko Eskola Kontseiluaren Autonomien Parte-hartze Batzordearen bilera, IDEA aldizkariaren azken alearen argitalpena eta Berrikuntza Proiektuak gai nagusi duten udazkeneko jarduerei buruzko monografiaren edizioa.
- Lehendakariak, 2015-16 ikasturteko NHSTren aurkezpena iragarri du. Otsailaren 8an, Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordearen aurrean egingo da.
- Lehendakariak, Landa eremuko eskolei buruz izango diren Udaberriko Jardunaldien informazioa zabaldu du: parte hartuko duten hizlarien zerrenda eta aurkeztuko diren Nafarroako ikastetxeen bost esperientziak edo proiektuak.
- 2016-2017 ikasturteko Lan-batzordeen osaketa eta funtzionamendua onetsi da. 2015-2016 ikasturteko NHST egin duen batzordearen lana eta Arauaren azterketa egin duen batzordearen lana goraipatuz.

### **2017ko martxoaren 29an**

- 2017ko otsailaren 21eko saioaren akta ontesi da.
- Lehendakariak Kontseiluaren gai orokoren berri eman du: web-guneko “Erregistratuak” atalaren sarrera berria, Berdintasunaren Zerbitzuaren Hezkidetza Plana eta Zientzia Azoka Proiektuak.
- Lehendakariak, Kontseiluak berak editatu eta martxoaren 16an aurkeztutako azken monografiaren aurkezpenaren berri eman du. Monografiak, Nafarroako ikastetxeek

2015-2016 ikasturtean aurrera eraman dituzten 20 berrikuntza proiektu biltzen ditu. Ikastetxe guztie eta ohiko erakundeei monografiaren ale bana helarazi zaie.

- “Landa eremuko eskola Nafarroan” gai nagusi izango duten Udaberriko Jardunaldien antolakuntzaren informazioa eta Arronizko, Etxalarko, Arnegi-Luzaide/Valcarlosko, Sakanako eta Uxueko Ikastetxe Publikoek aurkeztuko dituzten projektuen azalpen orokorra eman da.
- 3/2017 Irizpena, Batxilergoko ikasketak egiten dituen ikasleen ebaluazioa, promozioa eta titulazioa arautzen duen Foru Aginduaren proiektuaren gainekoa, onetsi da. Camino Bueno Zamarbide, Amaia Zubietar Garciandía, Francisco José Flores Pérez eta de Ignacio Toni Echeverriaren zuzenketak jaso dira.  
Irizpena onesten da, aho batez.
- Lanbide Heziketaren Zerbitzuaren Zuzendaria, Esther Monterrubio Ariznabarretak, Lanbide Heziketaren Plan Estrategiko berriaren azalpen zehatza eman du.

### **2017ko apirilaren 26an**

- Hezkuntzako Kontseilarri berria, María Solana Arana andrea, Osoko Bilkurako kideei zuzendu da.
- 2017ko martxoaren 29ko saioaren akta onetsi da.
- Lehendakariak Kontseiluaren gai orokoren berri eman du: “Landa eremuko eskola Nafarroan” gai nagusi duten Udaberriko Jardunaldiak apirilaren 7an eta 8an izango dira. Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordea maiatzaren 3an Iturengo eta Saldiasko landa eremuko eskoletara egingo duten bisita.
- 4/2017 Irizpena, A.F. proiektua: Baxu Elektriko eta Gitarra Elektrikoen espezialitateen ezarpesa, musikako irakaskuntza profesionalei dagokiena onetsi da. Camino Bueno Zamarbide eta de Alfredo Hoyuelos Planilloren zuzenketak jaso dira.  
Zuzenketen eztabaidaren ondoren bozketa egin da. Aho batez onetsi da.
- 5/2017 Irizpena, A.F. proiektua: Lanbide Heziketako irakaskuntzetako erdi eta goi mailako ziklo formatiboak egiteko Ikastetxe publiko eta pribatu itunduen harrera prozedura onetsi da. Camino Bueno Zamarbide batzordekidearen zuzenketak jaso dira.
- Irizpidea adostasun osoz onetsi zen.
- 6/2017 Irizpena, Nafarroako Gobernuaren Erabaki proiektua, Beriaingo HLHIP, Mutiloako (Aranguren) “San Pedro” HLHIPko D eredua, eta Noaingo (Elortzibar) “San Miguel” HLHIPko D eredua sartzen dituena Iruñeko “Mendillorri” Bigarren Hezkuntzako Instittuaren derrigorrezko bigarren hezkuntzako azpieremuan eta bigarren hezkuntzako eremuan, “Iruña-Erdialdea” izeneko 14. barrutian,  
Camino Bueno Zamarbideren zuzenketa jaso zen. Mikel Fernández de Quincoces Martínez de Birgarak esleipenen aldaketen zergatia azaldu ondoren, Batzorde Iraunkorrap zuzenketa onetsi du.  
Irizpena onetsi da: aldeko 20 boto eta 2 abstentzio.
- 7/2017 Irizpena, G.A.ren proiektua: Castejón DBHiren sorreraren gainekoa. Batzorde Iraunkorrap, Camino Bueno Zamarbidek aurkeztutako zuzenketak onetsi ditu eta Mikel Fernández de Quincoces Martínez de Birgarak proiektu honi buruzko azalpenak eman ondoren, bozketa egin da.  
Adostasun osoz onetsi da.
- Hezkuntza Departamentuko Ebaluazio, Kalitate, Formakuntza, Berdintasun eta Bizikidetza Zerbitzuko Zuzendaria den Aitor Lacastak, Berdintasun eta Bizikidetza Sekzioburu den Pilar Mayorekin batera, Hezkidetza Planaren aurkezpena egin dute.

### **2017ko maiatzaren 24an**

- 2017ko apirilaren 26ko saioaren akta onetsi da.
- Lehendakariak Kontseiluaren gai orokoren berri eman du: azken Bilkura Orokoretik egindako lanak, Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak Ituren eta Saldiasera egindako bositak eta Estatuko Eskola Kontseiluko Osoko Bilkurara bertaratzea.
- Lehendakariak, Batzordeak egindako lana eskertu du eta 2016-2017 ikasturteko Nafarroako Hezkuntza Sistemaren Txostenaren gaineko hobekuntzak aurkeztu ditu.  
Zuzenketa eredu berriaren proposamena ere aurkeztu du.

- Lehendakariak, antolaketa eta funtzionamendu arauak egunearatzeko proposamenak egiteko sortutako batzordearen ondorioak aurkeztu ditu. Proposamen guztiak, akordioak era argian egin dira, araudiaren 40. artikulari, dagokiona izan ezik. Batzorde Iraunkorak Osoko bilkuren baloraziopean jarri ditu proposatutako lau erredakzioak eta eztabaidea egin da.
- Ander Domblasek, Ordenazio, Orientazio eta Aukeren Berdintasunen Zuzendaria, Aniztasunaren Arretaren Planaren lerro orokorrak aurkeztu ditu.

#### **2017ko ekainaren 28an**

- Lehendakariak, HERRIKOA Ikasleen Gurasoen Elkarteen Federazioen ordezkartzaren aldaketaren berri eman du.
- 2017ko maiatzaren 24ko saioaren akta onetsi da, Camino Bueno Zamarbidek egindako 2 zuzenketa jaso ondoren.
- Lehendakariak Kontseiluaren gai orokoren berri eman du: Life+Respira Hezkuntza Proiektuaren itxiera, Nafarroako Institutuetako Zuzendarien elkartea (ADI) antolatuta Hezkuntza-itunari buruzko jardunaldia, Udazkeneko Jardunaldiak, Udaberriko Jardunaldien prestaketa.
- Lehendakariak, web-guneko “Erregistratuak” atalean Arau Batzordeak egindako dokumentua eskuragarri dagoela azaldu du. 12/1997 Foru Legea, azaroaren 4koa, aldatzeko egindako proposamenek pitzu zituen eztabaidak ikusita, batasun handiagoa lortu arte aldaketa hauek atzeratzea erabaki da. Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusiaren Antolaketa eta Funtzionamenduaren Araudia aldatzeko proposamenari dagokionez, tramitazioa bultzatzea adostu da.
- 2017ko lehenengo seihilabetekoaren kontuen aurkezpena eta onespena, baieztapenez. 2017ko aurrekontuen 43.000 euroetatik 16.418,25 euroko gastua egin da, kudeaketa kontuan 6.488,72 euroko ondarea geratzen delarik, ekainaren 26an.
- Lehendakariak Nafarroako Landa eremuko eskolen txostenaren aurkezpena egin du. Batzordekideei eskerrak eman ondoren, batzordekideek balorapenak egin dituzte. Akats baten ondorioz, gai hau bidalitako deialdian agertzen ez denez, eztabaidea atzeratzea erabaki da.
- Sergio Gómez Salvadorek batzordekidea izateari utziko diola azaldu du.
- Santiago Álvarezek hartu du hitza gai ezberdinei buruzko iritzia emateko. EBAU frogei buruzko gaian ere Cristina Bayona Sáez, Roberto Pérez Elorza, Iñaki Iraizoz Zubeldía eta Camino Bueno Zamarbide iritzia eman dute.

Nafarroako Eskola Kontseiluaren atari digitalean Osoko bilkuren akta guztiak konsultatu daitezke.

## 4 – BATZORDE IRAUNKORRAREN SAIOAK

### 4.1. BATZORDE IRAUNKORRETARA BERTARATZEA

Batzorde Iraunkorraren kidekop.	Izendatutako kideen kop.	Bertaratutakoen bataz bestekoa	Bertaratutakoen %a
9	9	7,1	%78,88

### 4.2. 2016KO IRAILETIK 2017KO ABUZTUA BITARTEAN IZANDAKO BATZORDE IRAUNKORREN SAIOEN LABURPENA

10 saio egin dira. Gaien edukia eta hartutako erabakiak ondoko hauek izan dira:

#### 2016ko irailaren 14an

- 2016ko ekainaren 22ko saioaren akta onetsi da.
- Azkeneko bileratik aurrera burututako ekintzen laburpena banatu du Lehendakariak.
- Lehendakariak Kontseiluaren gai orokoren berri eman du, Hezkuntza Departamentuak onartutako Berrikuntza Proiektuei buruzko Udazkeneko Jardunaldiak nabarmenduz.
- 2016-2017 ikasturteko Lan Egitasmoaren aurkezpena eta azalpena egin da.
- 2015-2016 ikasturteko Nafarroako Hezkuntza Sistemaren Txostenaren egoeraren berri eman du Lehendakariak.
- 2015-2016 ikasturteko Nafarroako Eskola Kontseiluaren Orotidazkiaren zirriborroa bidali dela oroitarazi du. Hurrengo Osoko bilkuraren aurkeztuko da.
- 2016ko irailaren 28ko Osoko Bilkuraren gai-zerrenda onetsi da.

#### 2016ko urriaren 14an

- 2016ko irailaren 14ko saioaren akta onetsi da.
- Lehendakariak, ohi den moduan, azken saiotik aurrera burututako jardueren laburpena banatu du eta ekintzen berri eman du.
- Azkeneko bileratik aurrera burututako ekintzen laburpena banatu du Lehendakariak.
- Lehendakariak Kontseiluaren gai orokoren berri eman du: Berrikuntza Proiektuen eta Landa eremuko eskolen Jardunaldiak, Haur Hezkuntzako monografia, Hezkuntza Hitzarmenaren gaia lantzeko Eskola Kontseiluetako Lehendakariekin Hezkuntza Ministerioarekin izandako bilera.
- 2015-2016 ikasturteko Nafarroako Hezkuntza Sistemaren Txostenaren eta Nafarroako Eskola Kontseiluaren Orotidazkiaren egoeraren berri eman du Lehendakariak.
- Orotidazkiaren zirriborroaren gaineko zuzenketak jaso dira. Hauek, genero hizkera zuzentzen dutenez, onetsi dira.
- Lehendakariak 2017ko kontuen aurreproiektau aurkeztu du.
- 2016ko urriaren 26ko Osoko bilkuraren gai-zerrenda onetsi da.

#### 2016ko azaroaren 17an

- 2016ko urriaren 14ko saioaren akta onetsi da.
- Lehendakariak, ohi den moduan, azken saiotik aurrera burututako jardueren laburpena banatu du eta ekintzen berri eman du.
- Lehendakariak Kontseiluaren gai orokoren berri eman du: Kontseiluaren Jardunaldiak eta monografia.

- 2015-2016 ikasturteko NHSTren zirriborroaren gainean jasotako zuzenketen eztabaidea. Proposatutako zuzenketen analisia egin da. Formazkoak direnak (akatsak, zuzenketak, genero hizkuntza...) onartu dira, eztabaiderik gabe. Ondoren, NHST osatzen duten bost atalekin lotuta jasotako ekarpenak berrikusi dira.

#### **2016ko azaroaren 23an**

- 2016ko azaroaren 17ko saioaren akta onetsi da.
- Lehendakariak, ohi den moduan, azken saiotik aurrera burututako jardueren laburpena banatu du eta ekintzen berri eman du.
- 36/2016 Irizpenarenen eztabaidea eta, badagokio, onesprena, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako bigarren zikloko, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasketak egin behar dituzten ikasleak ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan onartzeko prozedura arautzen duten oinarrien gainekeko proiektuari buruzkoa. Amaia Zubietar Garciandía, Jesús María Ezponda Iradier, Francisco José Flores Pérez, Josu Repáraz Leiza, Ignacio María Iraizoz Zubeldía eta Jorge Lanchas Riveroren zuzenketak jaso ziren. María Iraizoz Zubeldíak eta Jorge Lanchas Riverok bi zuzenketa aurkeztu dituzte batera. Sergio Gómez Salvadorrek zuzenketa bat aurkeztu du. Zuzenketen edukia kontutan izanda Osoko bilkurara eramatea proposatu da.
- 37/2016 Irizpena, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan diharduten ikasleak ebaluatzeko, hurrengo mailara pasatzeko eta titulazioa lortzeko arauak ematen dituen Foru Aginduaren proiektuaren gaineakoa, azaldu da. Amaia Zubietar Garciandía eta Camino Bueno Zamarbideren zuzenketak jaso dira. Zuzenketak Osoko bilkurara eramatea adostu da.
- 38/2016 Irizpena, Nafarroako Foru Komunitateko Iurralde eremuan diren Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan atzerriko hizkuntzak ikasteko programen oinarrizko alderdiak arautzen dituena eta zenbait ikastetxei haien emateko baimena ematen dien Foru Aginduaren Proiektuaren gaineakoa, aurkeztu da. Amaia Zubietar Garciandía, Jesús Mª Ezponda Iradier eta Sergio Gómez Salvadorren zuzenketak jaso dira. Zuzenketak Osoko bilkurara eramatea adostu da.

#### **2016ko abenduaren 14an**

- 2016ko azaroaren 23ko saioaren akta onetsi da.
- Lehendakariak, ohi den moduan, azken saiotik aurrera burututako jardueren laburpena banatu du eta ekintzen berri eman du.
- Lehendakariak, Nafarroako Eskola Kontseiluaren 2016ko 2. seihibekoko kontuen aurkezpena egin du.
- 2015-2016 ikasturteko Nafarroako Hezkuntza Sistemaren Txostenaren zirriborroaren gainekeo Osoko bilkurarentzako zuzenketen eztabaidea eta proposamena.
- Jesús Mª Ezponda Iradier, Mikel Fernández de Quincoces Martínez de Birgara, Sonia Cabrero del Amo eta Camino Bueno Zamarbideren ekarpen eta iradokizunak jaso ziren, horietako asko zuzenketen aurkezpen epea baino lehenago aurkeztuak. Zuzenketa hauek akatsak edo adierazpen hobekuntzak zirenez, denak testura batzea adostu da eta zuzendutako testua Osoko bilkurara bidaltzea erabaki da.
- 2016ko abenduaren 21eko Osoko bilkuraren gai-zerrenda onetsi da.

#### **2017ko urtarrilaren 18an**

- 2016ko abenduaren 14ko saioaren akta onetsi da.
- Lehendakariak, ohi den moduan, azken saiotik aurrera burututako jardueren laburpena banatu du eta ekintzen berri eman du.
- Lehendakariak Kontseiluaren gai orokoren berri eman du: NHSTren itzulpena, “Landa eremuko Eskola Nafarroan” gaia jorratuko duten Udaberriko jardunaldien antolaketa,

Hezkuntza Hitzarmena gai nagusia duen Parte-hartze Autonomikoaren Juntaren deialdia.

- 1/2017 Irizpena onetsi da: Nafarroako Foru Komunitatean araubide bereziko kirol ikasketen Eskalada Kirol Teknikari tituluaren egitura eta curriculuma ezartzen dituen Foru Aginduaren proiektuaren gainekoa.
- 2/2017 Irizpena onetsi da: Nafarroako Foru Komunitatean araubide bereziko kirol ikasketen Saskibaloi Kirol Teknikari tituluaren egitura eta curriculuma ezartzen dituen Foru Aginduaren proiektuaren gainekoa.

#### **2017ko martxoaren 15an**

- 2017ko urtarrilaren 18ko saioaren akta onetsi da.
- Lehendakariak, ohi den moduan, azken saiotik aurrera burututako jardueren laburpena banatu du eta ekintzen berri eman du.
- Lehendakariak Kontseiluaren gai orokoren berri eman du: Nafarroako ikastetxeek 2015-2016 ikasturtean egindako 20 berrikuntza proiektu biltzen dituen monografiaren aurkezpena, "Landa eremuko eskola Nafarroan" Udaberriko Jardunaldien antolakuntza, Hezkuntza Hitzarmena gai nagusia duen Parte-hartze Autonomikoaren Juntan parte-hartzea, Hezkuntza Departamentuak lantzen ari den Bizikidetza Planaren aurkezpena.
- 3/2017 Irizpena aurkeztu da: Batxilergoa diharduten ikasleak ebaluatu, mailaz igo eta haiei tituluak emateko eraren gaineko Foru Aginduaren proiektua. Camino Bueno Zamarbide, Amaia Zubietar Garciandía, Francisco José Flores Pérez eta Ignacio Toni Echeverría zuzenketak jaso dira. 15 zuzenketa osotara. Horietako batzuk onartu dira eta 6., 7., 9., 11. eta 12.ak Osoko bilkurara bidaltzea adostu da.
- Lehendakariak Lanbide Heziketaren Plan estrategikoaren aurkezpena egin du.
- 2017ko martxoaren 29ko Osoko bilkuraren gai-zerrenda onetsi da.

#### **2017ko apirilaren 19an**

- 2017ko martxoaren 15eko saioaren akta onetsi da.
- Lehendakariak, ohi den moduan, azken saiotik aurrera burututako jardueren laburpena banatu du eta ekintzen berri eman du.
- Apirilaren 7an eta 8an egindako "Landa Eremuko Eskola Nafarroan" gaiari buruzko Udaberriko Jardunaldien garapenaren berri eman du.
- Estatuko Eskola Kontseiluaren Osoko Bilkuran izandako parte-hartzearen berri eman du. Martxoaren 21ean izan zen, eta bertan, Juan Antonio Gómez Trinidad Lehendakariorde karguan aukeratu zen. Era berean, 2014-2015 ikasturteko Hezkuntza Sistemaren Egoeraren Txostenaren onetsi da.
- 4/2017 Irizpena aurkeztu da: Foru Agindurako proiektua, Hezkuntzako Departamentuari baimena ematen diona Baxu Elektrikoa eta Gitarra Elektrikoa espezialitateak ezartzeko, musikako lanbide ikasketei dagozkienak. 8 zuzenketa aurkeztu dira eta Osoko bilkurara eramatea adostu da.
- 5/2017 Irizpena aurkeztu da: Ikastetxe publiko eta pribatu-itunduetan Lanbide Heziketako erdi eta goi mailako graduen formakuntza zikloak egiteko onarpen prozesuaren Foru Aginduaren proiektuaren gainekoa.  
Camino Bueno Zamarbidek aurkeztutako hiru hizkuntza zuzenketa onartu dira.
- 6/2017 Irizpena aurkeztu zen: Beriaingo HLHI, Mutiloako (Aranguren) "San Pedro" HLHiren D eredu eta Noaingo (Elortzibar) "San Miguel" HLHiren D eredu Mendillorri BHiko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza azpizona eta bigarren hezkuntza azpizonara batzearen G. A. proiektua.  
Camino Bueno Zamarbidek aurkeztutako zuzenketa onartu da.
- 7/2017 Irizpena aurkeztu da: Castejongo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutua sortzen duena eta herri bereko "Dos de Mayo" Ikastetxeen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailak kentzen dituena.  
Camino Bueno Zamarbidek aurkeztutako bi zuzenketa onartu dira.
- 2017ko apirilaren 26ko Osoko bilkuraren gai-zerrenda onetsi da.

**2017ko maiatzaren 10ean**

- 2017ko apirilaren 19ko saioaren akta onetsi da.
- Lehendakariak, ohi den moduan, azken saiotik aurrera burututako jardueren laburpena banatu du eta ekintzen berri eman du.
- Lehendakariak Kontseiluaren gai orokoren berri eman du: Hezkuntza Kontseilariarekin izandako 2 bilera, Lanbide Heziketarekin lotutako NUPren Gizarte Kontseiluaren Jardunaldietan tratatutakoa, Navarro Villoslada BHIren urte honetako antzerkiak, Marqués de Villena BHIren 50. urteurrena eta Jaime Brunet sariaren banaketa NUPen.
- Landa eremuko eskolaren gaiari dagokionez, Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak Ituren eta Saldiasera egindako bisitak nabarmendu dira.
- Lehendakariak Araudi Batzordearen ondorioen aurkezpena egin du.
- 2017ko maiatzaren 24ko Osoko bilkuraren gai-zerrenda onetsi da.



*Parlamentuko Hezkuntza Batzordea Iturenen*



*Parlamentuko Hezkuntza Batzordea Saldiasen*

### 2017ko ekainaren 14an

- 2017ko maiatzaren 10eko saioaren akta onetsi da.
- Lehendakariak, ohi den moduan, azken saiotik aurrera burututako jardueren laburpena banatu du eta ekintzen berri eman du.
- Lehendakariak Kontseiluaren gai orokoren berri eman du: Madrilgo Eskola Kontseiluak antolatutako “Eskola ordutegitik kanpoko ikasleen etxerako lanak” monografikoan egindako parte-hartzea, Life+Respira Hezkuntza proiektuaren itxiera ekitaldia, IDEA aldizkari digitalaren edizio lanak.
- 2017ko lehenengo seihilabetekoaren kontuen aurkezpena. 2017ko aurrekontuen 43.000 eurotakik 14.524,12 euroko gastua egin da, kudeaketa kontuan 8.382,85 euroko ondarea geratzen delarik, maiatzaren 31an.
- Azken osoko bilkuran, maiatzaren 24koa, Kontseiluaren antolaketa eta funtzionamendu arauak eguneratzeko proposamenak egiteko helburuarekin sortutako Araudiaren Batzordeak aurkeztutako txostena aztertu ondoren, zenbait erabaki hartu dira.
- Lehendakariak Landa eremuko eskolen egoeraren txostena aurkezu du. Onetsi eta Osoko bilkurara bidaltzea adostu da.
- Lehendakariak zenbait Irizpen aurkezu ditu, Lanbide Heziketaren curriculuma eta egitura arautzen duen Foru Dekretuen proiektuen gaineckoak.
  - 8/2017 Irizpena, Produktu Grafiko Elkarreragileari Laguntzeko Arte Plastikoetako eta Diseinuko Teknikari Tituluaren egitura eta curriculuma arautuko duen Foru Dekretuaren proiektuaren gainekoa.
  - 9/2017 Irizpena, Teknikari eta Goi Mailako Teknikari Tituluen egitura eta curriculuma Hezkuntzako Lege Organikoaren arabera arautzen duen Foru Dekretuaren proiekta.
  - 10/2017 Irizpena, Instalazio Elektrotekniko eta Mekanikoen Oinarritzko Teknikari Tituluaren egitura eta curriculuma arautzen duen Foru Dekretua aldatzen duen Foru Dekretuaren proiektuaren gainekoa.
  - 11/2017 Irizpena, Foru Dekretuaren proiekta, Arte Plastiko eta Ebanisteria Artistikoa Diseñuko Goi Mailako Teknikari Tituluaren egitura eta curriculuma arautzen duen Foru Dekretuak aldatzen dituena.
  - 12/2017 Irizpena, Foru Dekretuaren proiekta, Ikus Entzunezko Proiektuen eta Ikuskizunen Errealizazioko Goi Mailako Teknikari Tituluaren egitura eta curriculuma arautzen duen Foru Dekretuak aldatzen dituena.
  - 13/2017 Irizpena, Foru Dekretuaren proiekta, Arte Plastiko eta Ikus entzunezko Diseinu Grafikkoko Goi Mailako Teknikari Tituluaren egitura eta curriculuma arautzen duen Foru Dekretuak aldatzen dituena.
- 2017ko ekainaren 28ko Osoko bilkuraren gai-zerrenda onetsi da.



*Life+Respira proiektuaren azken saioa*

## 5. TXOSTENAK

### 5.1. NAFARROAKO HEZKUNTZA SISTEMAREN TXOSTENA. 2015/2016 IKASTURTEA.



2016ko uztailaren 11an Hezkuntza Departamentura eta beste erakundeei Txostena egiteko beharrezko datuak eskatu ziren. Abuztu, iraila eta urrian zehar ekarritako datuak bildu ziren. Erakunde ezberdinen organigrama aldaketa dela eta, datuen kudeaketa korapilatsua izan zen. Honengatik, txostenaren fase hau atzeratu egin zen eta ondorengoko lan konplexua beharrezkoa izan zen.

Urriaren 27an, Osoko bilkurako kideei jakinarazi zitzaien 2. eta 3. kapituluak web guneko “erabiltzaileen” atalean eskuragarri zituztela eta zuzenketak aurkezteko epea abenduaren 9a arte finkatu zen.

Azaroaren 17an, 2015-2016 ikasturteko NHSTren zirriborroaren gainean jasotako hobekuntza eta zuzenketak Batzorde iraunkorrean aztertu ziren. Abenduaren 12an, Osoko bilkurako kideei jasotako azken zuzenketak bidali zitzaizkien. Hauek, 2016ko abenduaren 14an egindako Batzorde iraunkorrean aztertu ziren, eta abenduaren 15ean Osoko bilkurara bidali ziren. Abenduaren 20an jasotako zuzenketekin eguneratutako Zuzenketen zerrenda eta testua, Kontseiluko web-guneko erregistratuen atalean sartu ziren.

Jasotako zuzenketen lehenengo blokeak 61 zuzenketa eta gomendio biltzen zituen. Hauek, Jesús María Ezponda Iradier, Sonia Cabrero del Amo eta Mikel Fernández de Quincoces Martínez de Birgarak aurkeztutakoak ziren. Ondoren, Camino Bueno Zamarbide eta Alfredo Hoyuelos Planilloren zuzenketak jaso ziren. 107 zuzenketa osotara. Akatsak, adierazpen hobekuntzak edo hizkuntza inklusiboa ez erabiltzearen gomendioak jaso bezain laster onetsiak izan ziren.

2015-2016 ikasturteko NHST abenduaren 21eko Osoko bilkuran aho batez onetsi zen.

NHSTren kudeaketaren egutegiaren laburpena hau da:

NHSTren EGUTEGIA	
Lana	Data
Datu eta informazio bildu eta oinarrizko dokumentuak landu	urriaren 3a arte
Oinarrizko dokumentuak banatu, kapitulu bakoitzeko zirriborroak itxi ahala	azaroaren 9a arte
Batzorde iraunkorraren bilera 1. zirriborroa berrikusteko	azaroak 17
Zirriborroa Osoko bilkurara helarazi zuzenketak jasotzeko	azaroak 18
Zuzenketak jasotzeko azken eguna	abenduak 9
Osoko bilkurarako deialdia bidali azken eztabaidea egiteko	abenduak 5
Zuzenketen azterketa Batzorde iraunkorrean	abenduak 14
Osoko bilkurara zuzenketak bidali zuzenketa-orriarekin batera	abenduak 16
Osoko bilkuraren saioa	abenduak 21


2017ko otsailaren 8an, Nafarroako Eskola Kontseiluko Lehendakariak Txostena aurkeztu zuen Nafarroako Parlamentuaren Hezkuntza Batzordearen aurrean. Prentsa lokalaren ordezkariek gonbidatu eta bertaratu egin ziren. Aurkezpen digitala egin zen eta Nafarroako Eskola Kontseiluko web orrian zintzilikatu zen. Era berean, zenbait hedabidek txostenaren berri eman zuten.

Txostena era digitalean argitaratu zen eta 2017ko urtarrilaren 31an ondoko erakundeei helarazi zitzaien:

- Kontseilaria eta Hezkuntza Departamentua: 57 oroitidazki.
- Nafarroako Parlamentua. Hezkuntza Batzordeko kideak: 12 oroitidazki.
- Nafarroako Eskola Kontseiluko kideak: 35 oroitidazki.
- Estatuko eta Autonomietako Eskola Kontseiluak: 18 oroitidazki.
- Besteak: 80 oroitidazki (Nafarroako Gobernuko Lehendakaria, Parlamentuko Lehendakaria, Unibertsitateak, Nafarroako Ararteko, Liburutegiak, Sindikatuak, Gurasoen Elkarteak, Estatuko Goi Ikuskaritza, etab.).

Kontseiluaren web gunean txostena eskuragarri dago.

## 5.2. “0-6 HAUR HEZKUNTZA” MONOGRAFIA



Jardunaldien helburua, besteekin ikastea zen, baina baita 0-6 heziketaren garrantzia aldarrikatzea. Era pertsonalean, nazioarteko ikerketa askok kalitatezko eskolatze goiztiarrak bizitzan eta ondorengo eskola arrakastan duen eragina egiaztatu dutela azpimarratzea. Garapen pertsonalari ematen zaion garrantzia gero eta handiago da, bai mundu akademikoan baita sozialean ere, eta ondorioz, gai hau aukeratu da.

